# Imajinario posibleak:
## Dantza Sorkuntza Tailerra Dantzaren Inguruko Jakin-mina duten Pertsonentzat

# *Imaginarios posibles:*
## *Taller de Creación de Danza para Personas Curiosas por la Danza*

**aza. 13,20 nov.**
**abe. 3 dic.**

**18:00 - 20:00**

**10-15 pers.**

**Ibáñez de Matauco Antzokia,**
**Hegoalde Gizarte Etxea /**
***Teatro Ibáñez de Matauco,***
***Centro Cívico Hegoalde***

**Izen ematea /**
***Inscripción***
*atalak@dantzaz.eus*

# Imajinario posibleak

Ines Aubert koreografoak ATALAK Sarearen ildo komunitarioa garatzen jarraitzen du, koreografia komunikazio eta ahalduntze tresna gisa erabiliz, dantzara hurbildu nahi duten pertsona guztientzat.

*Imajinario posibleak* tailerrean, gorputza irudimenari irekitako espazio infinitu gisa aurkezten da, non denborak, espazioak eta mugimenduak gure gorputzak adierazpen tresna lez ulertzeko aukera anitz eskainiko dizkiguten. Inés Aubertek mugimenduaren esplorazioa proposatzen du tailer honetan, gorputz-kontzientziaren, inprobisazioaren eta dantza garaikideko tekniken esperientzietatik abiatuta.

Mugimenduaren plazerra eta garenaren edertasuna partekatzea da ideia, eta dantzaren bidez adierazteko eta konektatzeko modu berriak deskubritzeko gonbidapena egiten zaie parte hartzaileei.

# Ines Aubert

Dantzaria eta koreografoa da. Gorputzarekin, komunitatearekin, bere gorputzaren eta beste gorputz batzuen hizkerarekin lotutako ikerketan eta arte eszenikoen eta denboraren gaineko gogoetan ardazten da bere obra.

Emozioen mundua konplexurik gabe lantzen du, dantzaren, gorpuz adierazpenaren eta musikaren bidez emozioak agerian jartzen baititu, batetik bestera igarotzen eta balioesten. Metodologia hori errespetuan, gure arteko entzumenean eta sorkuntzan oinarritzen da, kohesiorako eta enpatiarako tresna gisa.

## Imaginarios posibles

La coreógrafa Inés Aubert continúa el desarrollo de la línea comunitaria de la Red ATALAK, utilizando la coreografía como herramienta de comunicación y empoderamiento para todas aquellas personas que deseen acercarse a la danza.

En el taller *Imaginarios Posibles*, el cuerpo se presenta como un espacio infinito abierto a la imaginación, donde el tiempo, el espacio y el movimiento nos brindarán múltiples opciones para entender nuestros cuerpos como instrumentos de expresión. Inés Aubert propone en este taller la exploración del movimiento, partiendo de experiencias de consciencia corporal, improvisación y técnicas de danza contemporánea.

La idea es compartir el placer del movimiento y la belleza de lo que somos, invitando a los participantes a descubrir nuevas formas de expresión y conexión a través de la danza.

## Ines Aubert

Bailarina y coreógrafa, su obra está centrada en la investigación relacionada con el cuerpo, la comunidad, lenguaje de su cuerpo y de otros cuerpos y la reflexión en torno a las artes escénicas y al tiempo.

Trata sin complejos el mundo emocional, transitando y validando diferentes emociones haciéndolas palpables a través de la danza, la expresión corporal y la música. Esta metodología se basa en el respeto, la escucha y la creación como herramientas de cohesión y empatía.

TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL
VITORIA-GASTEIZ

dantzaz

atalak

IKERKETA KOREOGRAFIKOKO
MUGAZ HARAINDIKO SAREA

RED TRANSFRONTERIZA DE
INVESTIGACIÓN COREOGRÁFICA

RÉSEAU TRANSFRONTALIER DE
RECHERCHE CHORÉGRAPHIQUE